

Lehiaren Euskal Agintaritzak 114 espediente ireki zituen iaz

2019an zehar, lehiaren aurkako ustezko 30 jokabide eta lehiaren sustapenerako 84 jarduketa aztertu ziren

Jarduketa horiek 2018-2022 Plan Estrategikoan aurreikusitako 38 ekintza-ildoetatik 36tan izan dute eragina


BILBON, 2020ko ekainaren 1ean / **Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) 114 espedientetan lan egin du 2019an –aurreko urtean baino %14 gehiago–. Horietan zigortzeko, sustatzeko, aurkaratzeko, irizpena emateko eta kontsultatzeko dituen eskumenak erabili ditu. Jarduketa horiek gauzatzeak 2018-2022 aldirako indarrean dagoen Plan Estrategikoko 38 ekintzetatik 36tan izan du eragina; horrek, definitutako lau helburu estrategiko nagusietan eta aurreikusitako ekintza estrategikoen %94,7an aurrera egin dela esan nahi du.**

Izapidetze-prozedura zorrotz bati lotutako **lehiaren defentsan**, lehiaren aurkako ustezko 30 jokabide aztertu dira. Horietan, kontratazio publikoak eta mota desberdinetako zerbitzuek aztertutako kasuistiken erdia baino gehiago bete dituzte, eta 4 kasutan Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpen batekin amaitu dira. Irekitako zigor espedienteen artean, olio birziklagarriak biltzen dituzten enpresak eta radar meteorologikoen enpresak aipa daitezke. Espediente horiek zabaltzeak ez du ikerketaren azken emaitza aurrez epaitzen. Prozesu hori hastea eragin duten arrazoizko aztarnak eta zehazten den kalifikazioa behin-behinekoak dira.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren aurreko urteetako ebazpenek ondorio guztiak izan ditzatela lortzea helburu duen zaintza-lanean, espediente hauek zaindu dira: Arrasateko autoeskolak, Arabako arkitektoen lan-poltsak, Bizkaiko arkitektoen lan-poltsak, Gipuzkoako arkitektoen lan-poltsak, Arabako Dentisten Elkargoa, Arabako Graduatuen Elkargo Ofiziala, Eskoletako Jantokiak, Egoitzetarako farmazia-zerbitzuak eta Gipuzkoako Bidaiarien Garraioa.

Lehia sustatzeko jarduerari edo Advocacy izenekoari dagokionez, Agintaritzak lehiaren kultura zabaltzera eta finkatzera eta merkatuen funtzionamendua hobetzera bideratutako 84 jarduketatan egin du lan.

Ohiko jardueraz gain –adibidez, sustapenerako 16 txostenak edo Dekretu bat aurkaratzea–, enpresetan **Compliance**-an edo lehiaren arloan arauak betetzeko programak ezartzearekin erlazionatutakoak nabarmendu ziren beraien berritasunarengatik. Zabaltzen laguntzeko bloke integratua osatzen duten ekintza osagarrien multzoa abian jartzeak agerian utzi zuen



Agintaritzak prebentziozko protokolo horiekin duen konpromisoa: Lehiaren arloan Estatuan argitaratutako Compliance-aren lehen Gida, LEA/AVCk kaleratutako lehen kontsulta publikoa eta enpresa-erakundeekin lankidetzan antolatutako bi lan-jardunaldi.

Sektoreka jorratutako gaiak kontuan hartuta, Agintaritza Sustatzeko jarduerak, administrazio arloko erregulazioa (13), kontratazio publikoa (9) eta merkataritzako banaketa (9) barne hartu zituzten batez ere.

LEA/AVCri hainbat kanal (posta, telefonoa, webgunea eta posta elektronikoa) erabiliz egindako kontsultak 27 izan dira, eta horietatik %50 baino gehiago enpresen eta profesionalen aldetik eta merkataritzako banaketarekin, elkargo profesionalekin eta hainbat zerbitzuekin erlazionatutako arazoetatik etorri dira.

Azkenik, gauzatutako jarduera instituzionalaren barruan, CNMCK eta Autonomia Erkidegoetako agintaritzek esku hartzen duten Lehia Sarearen partaidetza nabarmentzen da. 2019an, Lehiaren Defentsarako Kontseiluan eta Lantaldeen 9 bileratan parte hartu du LEA/AVCk. Gizartera hurbiltzeko konpromisoaren barruan, Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin da, erakundeen arteko topaketak egin dira, eta konferentzietan hitzaldiak eman dira.

2019ko Jarduketa Memoria

https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/memoria_actividades/es_mem_oact/AVC_memoria_2019_A4_cast_web.pdf

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta erakunde eta funtzio autonomia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.